

Herriko udal liburutegiak 'Irakurri 2007' kanpaina abian jarri du egunotan

Liburutegiak irakurtzeko gonbidapena luzatzen du.

HONDARRIBIA. DV. Hondarribiko liburutegiak, Euskadiko liburutegi sareko kide dela, 'Irakurri 2007' kanpaina abian jarri du. Egitasmo honen helburua liburutegia hiritarregana gerturatzea da.

Duela zenbait urte, guztiz era xumean eta liburutegi bakar ba-tzuetan, liburutegiaren eguna antolatzen hasi zen, urriaren 24an ospatzen dena, hiritarrentzat oraindik ere ezezagunak diren liburutegien zerbitzuak ezagutze-ra emateko asmoz. Gaur egun, oroipen hau sustraituta dagoela ematen du.

'Irakurri 2007' kanpaina jarduera desberdinek osatzen dute, argazki lehiaketatik hasi eta txikien artean irakurzaletasuna sustatzeko gurasoei zuzendutako gida txiki bat ere banatzen da.